

A. ROMAN KARMELDARRA
(LEON URTIAGA ELEZBURU)

Oroipena

Oraina soilik omen dugu geure esku; oraina landuz geroaren bila ari gara. Baina gure espirituaren kamerak ez ditu hartzen soilik hurbilekoa eta urrutikoa, baita iraganekoa ere. Eta iraganean altxor ugari dugu oraingo eta etorkizunerako baliagarri eta ia ezinbesteko zaizkigunak. Besteak beste, pertsona batzuegan kokatzen da gure barne-kameraren begia. Izan ere, ahaztekoak ez diren gizon-emakumeak aurkitzen ditugu hor. Ahaztu behar ez direnak eta ahaztu nahi ere ez ditugunak. Horietako bat dugu Aita Roman zaldibartarra. Haren oroipena lau haizetara zabaldu nahi genuke, baina besterik ezean, *Karmel* aldizkariaren orrialde xume hauek izan bitez desira honen lekuko. Era askotakoak izan daitezke ahaztearen ilunpetatik askatu nahi diren pertsonen merezimenduak, baina kasu honetan, beraren balioak eta Herri honi eta Ordena erlijiosoari egin zizkion ekarpenak baino gehiago, bidegabekeria ikaragarri baten biktima izateak indartzen du gugan haren oroipena berreskuratu eta haren izena ohoratu nahia.

Ez da lehenengo aldia gure gerra zibileko biktimaz aldizkari honetan idazten duguna. Orain dela bi urte, *Florentzio Markiegi eta azken gutunak Duesoko kartzelatik* izenburuaz idatzi genuen honen hariko beste lan bat (2011-1). Esaldi hau dakargu handik: “Oroipen historikoaz ari garela, 1936ko gerra zibilera

eta gerra ostera begiratzen dugunean, sufrimendua, kartzelak, hilketak, bidegabekeria basatiak, indarraren eta armen legea... ikusten ditugu”. Aita Roman frankistek fusilatu zuten, gorrotoz beterik, Larreako Karmeldarren baratzeke horma ondoan. Hil zuten lekuan bertan utzi zuten hilotza, biharamunean erreketek piketeko soldaduek lurperatu zuten arte. Orain dela urte batzuk txaletak eraiki ziren Larreako bigarren baratzea izan zen inguru hartan eta *Aita Roman Urtiaga Kalea* jarri zioten izena. Bada zerbait, frankistek hildako asko eta asko non dauden ere ez baitakigu oraindik...

Adierazgarria da, dena dela, A. Antonio Unzuetak, Nafarroako San Joakim Probintziako artxibozainak, *Catálogo de los Religiosos Carmelitas Descalzos de la Provincia de San Joaquín de Navarra* liburuan, Aita Romani dagokion azpiko oharrean, dioena: “Fue asesinado por las tropas nacionales, calumniada su memoria por las autoridades franquistas y silenciado el hecho por los cronistas oficiales de la Orden”. Hain hitz gutxitan zail da gehiago esatea. Aita Romanen azken dramatikoa eta hiltzailleen orban beltza ezin hobeki laburtua eta adierazia dago.

Kronikari ofizialek ez dute kemenik izan egia esateko, edota ez dute hautsi nahi izan diktadurak gai hauen inguruan ezarritako isiltasun-agindua. Baina gure erlijioso askok, garai triste haien lekuko izan zirenek, ez zituzten ahaztu ez Aita Roman ezta gerra osteko errepresioa jasan zuten gainerako karmeldarrek ere. Gure belaunaldikoei euskal komentuetan iritsi zaigu horren guztiorren berri. Kronika bizia zen, ahoz aho zabaltzen zena; euria bezala zen, batzuetan tantaka, zirimiru antzera edo azeria busti zuena bezala, gure kontzientzia gaztera isurtzen zena. Era naturalean helarazten zen oroipen historikoa zaharretatik gazteetara. Hau euskal giroko komentuetan gertatzen zen, jakina, ez gainerakoetan, hauetan diktadurari men egin baitzioten oro har.

Kronikari ez-ofizialak

Ahoz ahoko informazioaz gainera, bada gerrateko kronikari ez-ofizialik ere. Guztien gainera, Aita Rafael San Joserena (Sotero Urionaguena) aipatu behar. *Relato histórico del Convento de Larrea y de las Andanzas de su P. Prior durante la Guerra Civil de España 1936-1940* deritzon lana idatzi zuen honek eta guk aldizkari honetan argitaratu genuen gaztelaniazko originala ezkerreko aldean eta euskarazko itzulpena eskuinekoan (Karmel 2005-4). Hauxe da iturri nagusia eta lehen mailakoa A. Romanen azken egunei buruz.

Lino Akesolok, bera ere lekuko hurrekoa izan arren, hemendik hartu zuela dirudi. *Orain 50 urteko gerrate-nekeak Karmeldarron gogoan* idatzi zuen (Karmel 1987-3).

Julen Urkizak idatzitako *Los Carmelitas en Larrea, Tres Siglos de Vida e Historia* (Larrea, 2012) liburuak, Larreako Karmeldarren historiaren barruan, luze eta zabal jasotzen ditu gerrateko historia eta Aita Romanen bizitzako azken uneak, baina bidezkoa denez, lekuko zuzena denaren iturrira jotzen du horretarako: Aita Rafaelen kronikara.

Harritu nau A. Santi Onaindiaren *Oroi-txinpartak* liburuan Aita Romanen aipamenik ez aurkitzeak. Izan ere, A. Santik gerra zibileko, kartzelako eta Larreako gauza asko aipatzen ditu. Baina ez dakit nola ihes egin dion lumatik edo oroime-netik hain hurbilekoa eta zirrargarria izan zen heriotza honen albisteak.

Biografia laburra

A. Roman San Joserena, Leon Urtiaga Elezbururen izen erlijioso da. Zaldibarren (Bizkaia) jaio zen 1888ko otsailaren 20an. Larreako Nobizio-etxean egin zuen profesa 1905eko martxoaren 22an; handik hiru urtera eta data berean, martxoaren 23an, Iruñean egin zuen profesa nagusia; eta, azkenik,

Gasteizen apaiztu zen 1913ko irailaren 20an. Larreako Karmeldarren Ikastetxe Txikiko zuzendaria izan zen hainbat urtetan. Gero, berriro Zornotzara itzuli aurretik, urte gutxi batzuk igaro zituen Kantabriako Hoz de Aneroko basamortuan. 1936ko maiatzean egin zen Probintziako Kapituluari Zornotzako Ikastetxe Txikiko nagusi hautatu zuten, ikastetxe hau Larreatik Zornotzara aldatua izan zenean.

Probintziako artxibotik bidali diguten txostenak dio, erlijioso atsegin eta karitate handikoa zela, gaixoei laguntzeko beti prest zegoena, bere ardurapean ziren ikasleen aldetik maitatua eta hauengan euskal kulturarako zaletasuna pizten saiatzen zena. 1936ko maiatzean ikastetxeko nagusi hautatu zutela esan dugu. Hantxe harrapatu zuen bete-betean gerra zibilak. Ikasleak beren etxeetara bidaliak izan ziren eta gerrateko lehenengo aldian ikastetxea gerrako zaurituen ospitale bihurtu zen. Francoren aldeko tropak Zornotzara hurbildu ahala, ikastetxeko erlijiosoak alde eginez zihoazen, batzuk Bilbora eta beste batzuk Frantziara. Aita Roman bakarrik geratu zen, eta bere gain hartu zuen ikastetxearen ardura. Ordurako utzia zion zaurituen ospitale izateari, eta ikastetxea arrisku larrian zen, gerrako su-puntuan, alde batekoek eta bestekoek erasotzen ziotela. Une hartan, nondik irtenik ez, eta bere burua Etxanon egoitza zuen frankisten aginte militarren esku uztea erabaki zuen. Hau 1937ko maiatzaren 19an gertatu zen. Hemendik aurrerakoan goian aipatutako kronikari nagusiari uzten diot hitza:

Hurbileko lekukoa

A. Rafaelek harreman estua zuen A. Romanekin; une larri haietan elkarren babes eta aholku-emaile gertatu ziren. Etxanoko apaizetxea Larreako fraideen behin-behineko bizileku izan zedila eskatzeko unean ere bolibartarrak ez zuen zaldibartarraren iritzia entzun gabe egin nahi izan:

“Trailaren 28an, A. Romanek, ikastetxeko nagusiak, telefonoz esan zizkidan azken orduko egoera hori zela eta hartu ziztuzten erabakiak; (...) ikastetxea hustu beharrean izanik, A. Romanek esan zidan, gure Aita Ezekielek Anaia Eugeniorekin batera Arasosako bere etxera joatea erabaki zuela, etxe hori Larreatik urrun eta gerra-arriskutik babesturik zegoelako, eta une hartantxe Etxanoko erretore Don Timoteo Barrenetxearengana joatekotan zela, ikastetxean zegoen A. Gerardo aldi baterako bere etxean hartzeko prest ote zen galdetzera.

Proposamen hau entzutean, apaizetxea benetako irtenbidea izan zitekeela bururatu zitzaidan; irtenbidea ez A. Gerardoren zat bakarrik, baita Larreako erlijioso guztientzat ere, A. Gerardo bere ondoan hartu beharrean apaizetxea uzten bazigun geuk erabiltzeko, berak, ordura arte bezala, alkate jaunaren etxean bizitzen jarraituz seguruago egotearren. A. Romani agertu nion neure bururakizun hau eta oso ondo iruditu zitzaion. Geroko utzi gabe, Etxanora jo zuen Don Timoteori zer egoeratan geunden eta beraren etxeaz zer bururakizun izan genuen azaltzeko.

Erretoreak, guri ausartak iruditzen zitzaizkigun gurariak jakitean, ez bakarrik onartu zuen gogo onez eta maitasunez gure eskaria, baita altzariak, sukaldeko tresneria eta berak erabiltzen ez zuen ontziteria uzteko eskuzabalez hitzeman ere.

Araza, beraz, konpondurik zegoen: Etxanoko apaizetxean leku egingo zitzaien komentuan egoterik ez zuten edota, bonbardaketak zirela eta, komentuan lasai ez zeuden erlijiosoei. Betiko esker ona zor diegu horregatik Timoteo erretore jaunari eta Martzelino Agirregoikoa alkate jaunari”.

Ikus dezagun orain, gure karmeldarra fusilatua izan baino egun batzuk lehenago, bien artean izan zuten harremana:

“Azken aldi honetan izan nuen ekintza itogarria izan zen. Orain Larrean nengoen, orain Etxanon, orain Bilbon, etxeko

gauzak zuzentzen eta nire ardurapean zeuden pertsoneri laguntzen.

Besteekin nituen arduetatik askaturik, maiatzaren bederatziko iluntzean Larrearako bidaia hasi nuen. Gau ilunean heldu nintzen gudari-jantziak eta ikastetxera joan nintzen, han lo egiteko eta, era berean, A. Romanekin hitz egiteko asmoz. Bakarrik aurkitu nuen (hala egoten zen gehienetan, batzuetan A. Simon lagun izaten bazuen ere) eta gelara joana, bere ikastetxe maitearen zori berbera onartzeko prest. Atean dei egitean ezagutu ninduen eta, berezkoa zenez, arin-arin eta pozik ireki zidan. Baina haren nahigabea, niri afaria emateko ez baitzuen ezer! Kontatu zidanez, hainbat egunetan ortuan hartzen zituen letxugak eta tipulak bakarrik jaten zituen, beheko solairuan zeuden ertzainek janaria ekartzen ziotenetan izan ezik. Plazako Ordezkarriak, Luzuriaga jaunak, jarrita zeuden ertzainak ikastetxea zaintzeko, baina ikastetxeko alde nagusian Batailoi gorriaren guardia zegoen. Hemendik atera daiteke zein arrisku handitan zegoen A. Roman, milizianoek erretaguardiara erretiratzera behartzen baitzuten; izan ere, xedapen ofizialek hala agintzen zuten, hau da, 60 urte bete gabeko gizonezkoak erretaguardiara erretiratzeko; horregatik arrisku handian sartzen ziren hori betetzen ez zutenak, faxisten aldekotzat hartzen zituztelako”.

Harreman horiek zaildu egin zitzaizkien gero, etxetik irteetan hegazkinen eta metrailadoreen arrisku handitan jartzen baitziren. Hala diosku A. Rafaelek pasarte honetan:

“Egun horretaz geroztik honela geunden gu banaturik: Aita Roman eta Simon ikastetxean, Aita Vidal eta Anaia Karlos Etxanon eta Aita Jose Domingo, Anaia Eugenio eta ni Larrean; gainerakoak, Begoñan eta Frantzian; aurrerantzean harremanik gabe gelditu ginen; izan ere, arriskutsua zen etxetik irtetea, lurrean mugitzen zen edozein izakiri bonbak jaurtitzen baitzizkien hegazkinak; behin baino sarriago ikusi genuen metraila-

doreaz txakurren eta katuen aurka su egiten, hainbat pertsona metrailek harrapatuz”.

Tropa frankistak Larrean sartu zirenean, gauzak aldatuko zirelakoan zeuden gure fraide gaixoak, erlijioaren izena erabiltzen zutelako beren egintza beltzen zurigarri. Oraindik ez zituzten ezagutzen geroago ezagutuko zituzten bezain ongi... Beraz, salbamen gisa, haien aginte militarren aurrean beren buruak aurkeztera zihoazen:

“Kanpaiak jotzen hasi ziren; nazionalak ziren, A. Avelino lagun zutela. Arnasa hartu genuen lasai, atsedenezko paradisuan sartzen ginela uste izanik. Bada, purgatorio ederra jasan beharko genuen oraindik.

Arratsaldeko 5ak aldean itzuli ziren nazionalak komentura; ofizial bat etorri zen Oriamendiko 3. Konpainiako dozena bat erreketerekin eta gainera, kapilaua, Lezoko apaiz gazte bat, A. Jose Domingo ezagutzen zuena. Elkarri agur egin ondoren, hizketan egon ginen unetxo batean. Euren lekura joatean, galdetu genien ea Etxanora joan beharra izango genuen ala komentuan geratu ahal izango genuen. Haiek erantzun ziguten, gorriak ez zirela itzuliko eta gera gintezkeela, baina atea itxita pertsona partikularren bat sar ez zedin. Erreketen hauen artean Larreako ikastetxeko ikasle izandako bat zegoen, Aramaio ize-nekoa, Lasarteko semea; hark esan zigun, pozik esan ere, A. Simon eta A. Roman –hau beraren garai bateko zuzendaria– Etxanora joan zirela eta han zeudela.

Biharamunean, hilaren 19an, geure elizan eman genituen mezak eta gosaria hartu ondoren, komentuko klaustroen garbi-ikuzia egiteari eman genion, Leonaren ahizpek eta alabek lagundurik; izan ere, arratsaldean Etxanora joateko ustea genuen, nazionalen buruzagiei agur egitera. Etxean janaririk ez ontzirik ez geneukanez gero, Santos eta Leonaren etxean jatekotan geratu ginen.

Garbi-ikuzia egin ondoren, Santoseneko etxe aurrean nengoen ni eserita Josetxuren etxeko horma ondoan, bazkal orduaren zain, eta hara non agertzen den Ategorrin erreketeen piketea Larrearantz zetorrela; atetik metro gutxira, bidetik albo-ra eginik, soroetatik jaitsi ziren gure ortuko hormei ukitzen dagoen Villasanteren basotxorantz; harritu nintzen, handik Larreako errepidera irteterik ez zegoelako, arerioen fusilen jomugan jarri gabe. Minutu gutxi barru, fusilen tiro-hots zarratua entzun zen. Ez nuen usteko, ezta hurrik ere, une hartan hil zutela gure Aita Roman agurgarria! Jatera joan ginen pentsatuz, hauek ere erraz alferrik galtzen zutela munizioa.

Bazkaria amaitzen geundela, erreketeen piketea agertu zitzaigun esanez, euren buruzagiengana erlijiosoak eramateko agindua hartu zutela. Haiekin zetorren kapilau jauna, Lezokoa, aurreko egunean komentuan agurtu genuena. Berehala abiatu ginen Aita Jose Domingo, Aita Avelino, Aita Bizente, Anaia Eugenio eta ni neu. San Joango aldapan gora gindoazela zelatan genuen arerioak tiro egin zigun, baina inor zauritu gabe. San Joango menditxoaren atzealdean harrera hotza egin zigun Oriamendiko 3. Konpainiako Kapitainak, Altuna jaunak; honek, era berean, A. Rokeren etxera eraman gintuen, han baitzeukan egoitza Teniente Koronel Lastra jaunak. Atean geratu ginen, kapitaina barrura sartuz; han hitz egin zuen une batean bere buruzagiarekin. Irteeran hotz-hotz esan zigun: ‘goazen!’; ‘hartu fusila eta etorri nirekin’ –esan zion atean zegoen soldadu bati; guztiok jarri ginen Etxanorako bidean. Bidean kapitainari hizpidea ematen ahalegindu ginen, bai Tolosari buruz, bai Gipuzkoako beste herri batzuei buruz. Hizketaren harian euren jokaera nolakoa izan zen aipatzean, Aitzolen, Arin Arrasateko artzapezaren eta abarren fusilatzeak kontatu zizkigun; ekintza horiek zuritzen ahalegintzen zen, abertzaleei zieten gorroto ikaragarria erakutsiz.

Bi aldiz galdetu genion A. Roman eta A. Simoni buruz. Hau Gasteizera joan zela esan zigun, baina A. Romani buruz egin-dako galderei ez zien zuzen erantzuten, iheska baizik”.

Honen ondoren, bere kontakizunean aurrera eginez, nola A. Jose Domingo eta bera fusilatzeako agindua emana zegoen kontatzen du, baina beraiek ez zekiten hori une hartan; nori burura etorri halakorik? Gero, Gasteizko Karmeldarren komentuan atxilotu gisa zeudela, jakin zuten argi eta garbi, une hartan fusilatzea eragotzi zuen Bernardo Astigarraga Begoñako Erretoreak esanda. Dena dela, bizi-bizi kontatzen dizkigu Etxanon izan ziren gorabeherak, joan-etorriak, tirabirak. Alde batetik Altuna Kapitaina eta Lastra Teniente Koronela zeuden, eta bestetik Astigarraga Begoñako Erretore jauna eta Hormaetxea jauna Etxanoko alkate berria. Azken batean, aginte militarrek une hartan hartua zuen erabakian atzera eginaraztea lortu zuen Astigarraga jaunak Etxanoko Alkatearen laguntzaz, hala ere ezin izan zuten eragotzi erlijiosoen urte batzuetako kartzela.

Baina itzul gaitezen harira. A. Rafaelek, izenburuak berak dioenez, Larreako historia eta bertako Priorearen ibilerak Gerra Zibilean kontatzen dizkigu. Dena dela, bide batez, Aita Romanen hainbat zertzelada agertu ondoren, azken kapitulua, hamabosgarrena, osorik eskainiko dio berari. Guk ere bere horretan ekarriko dugu orrialde hauetara:

“Kontaketa hau honaino heldua denean, egoki deritzot Etxanora eta Larreara itzultzeari, erlijioso agurgarri eta gure Zornotzako ikastetxeko nagusi izan zen A. Romanen oroipe-nez kapitulu berezi bat tartekatzeko, labur bada ere, haren he-riotza tragikoaren historia kontatuz.

XV

A. Roman nazionalen aldera igarotzen da. A. Roman Etxanon. Militarrek deitzen diote. Haren fusilatzea eta gorpua ezagutzea. Hainbat lekukotasun.

Kontaketa honen beste atal batean adierazi dut, nola Aramaio izeneko erreketek esan zigun Larrean, A. Simon eta A. Roman Etxanora joan zirela maiatzaren 18an; eta baita nola haietaz behin eta berriro galdetu genion Altuna kapitainari ere, bigarrenaren berririk lortu gabe. Etxanoko erretoreari, honen ilobari eta beste pertsona batzuei ere galdetu genien; inork ez zuen haren berri zehatzik, hala ere, hilaren 19 goizean, Etxanon ikusi zuten. Norbaitek Zornotzako ikastetxera joan zela esan zigun eta beste norbaitek Zaldibarrera joan zela ere bai...

Gasteizko komentura iritsi ginen eta A. Romanek galdetu, baina han ere ez zekiten ezer hartaz. Dena dela, zurrumurru kezagarria heldu zen gure belarrietara. Korellako priorea, A. Eladio, Zornotzako bere etxekoak eta senitartekoak bisitatu ondoren, Korellara bidean Gasteizera iritsi zen; fraide honek zekarren berri zehatza: Nazionalek fusilatu zutela A. Roman. Guri, ordea, A. Roman bala galdu batek jo zuela ikastetxeko ortuan esan ziguten. Behin Begoñako erretorearekin hizketan ari ginen sakristian; A. Romanen zoria aitatu zen eta A. Jose Domingok guk entzun berri genuena, hau da, bala galdu batek jota hil zela A. Roman, esan zionean, Don Bernardok harri-durazko keinua egin zuen eta, aire esanguratsuan, esan zion: Baina nork hil du A. Roman? Horrekin esan nahi zuen, guk us-te genituenak ez zirela izan haren heriotzaren errudun, beste batzuk baizik.

A. Jose Domingo A. Priorearen gelara joan zen eta A. Romanen heriotzari buruz Begoñako erretoreak aditzera eman ziguna jakinarazi zion. Orduan A. Amaliok, kontuz baina era berean argi, esan zion A. Eladiok ekarri zuen albiste, hau da,

nazionalek fusilatu zutela A. Roman. Behingoan hasi ginen haren heriotzako xehetasunak arakatzen; haietako batzuk Gasteizen bertan jakin nituen; beste batzuk Begoñako kartzelan, baina gehienak, askatasuna lortu ondoren, Larrean eta Etxanon zehar ibiliz. Horiek guztiak bildurik, labur-labur jarriko ditut hemen:

Maiatzaren 16 gauean, A. Simon Larreara etortzean, A. Roman bakarrik geratu zen ikastetxean. 17ko ilunabarrean ikastetxera itzuli zen A. Simon, (...) baina zenbait ordu baino ez zituen eman A. Romanekin, ez baitzuen bere burua seguru ikusten ikastetxean; izan ere, hainbat aldiz deitu zioten Euskadiko Agintari militarrek. Beraz, Ategorriko San Joanen zeuden nazionaletara jo zuen, A. Roman ikastetxean bakar-bakarrik utzirik.

Hilaren 18an, ikastetxeari bi aldeetakoek erasotzen ziotela ikusirik, nazionalen aldera igarotzea erabaki zuen A. Romanek eta goizeko 10ak aldean irten zen ikastetxetik. Bidean Irene Isusi andereñoarekin eta Zornotzako beste andre batekin topo egin zuen; hauek ere San Joanerantz zihoazen A. Romanen asmo berarekin: San Joanetik Etxanora igaroko ziren berehala. Egun horretan, agintari militarren aurrean bere aitortpena egin ondoren, pasaportea lortu zuen A. Simonek Gasteizera joateko, baina ez larrialditxo bat edo beste igaro gabe, A. Simon gatibu ohia izanik haiengana desertore gisa agertu bazen ere. Aitortpena egiten zuen bitartean, Zornotzako eta Larreako erlijioso eta apaizen aurka zuten amorrua erakutsi zioten eta, beste gauza batzuen artean, Altuna kapitainak esan zion, haietako batzuk larri ibiliko zirela; lehenago ere lau apaiz hil zituela eta horregatik kontzientzia lasai zuela.

Hilaren 19an, asteazkena, nazionalek kanpai hotsean meza izan zuten Etxanoko parrokian. Meza aurretik Lastra Teniente Koronelak, herriko jendearekin hizketan ari zela, kaleko jantziz zegoen Don Luis apaizari begira, galdetu zion nor zen jaun hura; parrokiako apaiz laguntzailea zela erantzun zioten; Don Luisi esan zion: zer dela eta ez zara janzen sotanaz? Aurreko egu-

netako batean bonba bat erori zela bere etxera eta hondaturik utzi ziola arropa, erantzun zion. Orduan A. Romani, hau ere kaleko jantziaren zela, nor zen galdetu zion; erlijioso zela erantzun zionean, abitua jantzeko esan zion. Honek berehala jantzi zuen guk apaiz-etxean utzitako bat eta abituz jantzita esku hartu zuen mezatan. Amaieran Gobernuak kanoi-tiroa jaurti zuten eta elizako horman jo zuen, ondorio txarrik gabe.

Meza ondoren dei egin zion aginte militarrek A. Romani. Ez dut jakin ahal izan zein etxetara, baina uste dut A. Rokeren etxera izango zela, han baitzeukan egoitza Lastra jaunak; han egin zuen aitorpena A. Simonek eta hara eraman gintuzten gu ere arratsalde hartan. Ez dakigu A. Romanek aitorpenik egin zuen; eta egin bazuen, zer esan zuen. Dakiguna, norbaitek edo norbaitezuek salatu egin zutela: “abertzalea zela eta ikastetxeko gazteen artean kalte handia egin zuela”. Zornotzan guztien ahotan zebilen salatarietako bat J.M. Tx de E. izan zela eta pertsona sinesgarrien ahotik entzuna dut F. O. jaunak ere jende aurrean harro esan ohi zuela Zornotzako taberna batean berak ere salatu zuela A. Roman.

Egia goizeko 11etan Uixar baserrian agertu zela da eta etxe-koandreaki esan ziola ea jaka bat zeukan, kaleko janzkeraz jantzeko agindu ziotela eta; aipatutako andreak, Luzia Artabek, erantzun zion bere etxeko jantziaren artean ez zeukala eskatu zuena, baina, nahi izanez gero, etxeko jaunaren brusa utziko ziola. Harekin zihoazen soldaduak, etxe hartatik irten zenean, esan zioten andreaki (honek gaztelaniaz ez zekiela) “Ama, hau, hau!” eskuaz karmeldarra hil egingo zutelako keinuak eginez. A. Romanek Uixar baserrian utzi zuen abitua eta Luzia Artabe andreaki eman zion diru-zorroa hainbat dirurekin¹.

¹ Arratsaldean Luzia Artaberren etxean militar bat agertu zen eta esan zion karmeldarra Gasteizera bidali zutela eta ea karterarik ez ote zuen utzi han dokumentuekin. Andreak baietz erantzutean, eskatu eta aldean eraman zuen. Ez dakigu zenbat diru edukiko zituen.

Eguerdiko 12etan erreketean pikete batek ekarri zuten Ategorrin eta Gorritxuren eta Santoseren soroetan zehar Larreako gure ortuaren beheko aldera; eta han Villasanteren basotxoan gelditu eta leku hartan hamar edo hamabost minutuko gelduina egin ondoren, fusilen tiro-hotsa entzun zen eta haiek kendu zioten bizia erlijioso eredugarri, hainbat urtez merezizimendu handiko zuzendari eta une hartan ikastetxeko bikario zen A. Roman San Joserenari. Orrialde hauetako beste atal batean adierazita geratu denez, aipatutako pikete hura nola etorri zen neu izan nintzen lekuko eta armen tiro-hotsa ere entzun nuen, une hartan maniobra hark zer ondorio ekarri zuen ez banekien ere.

Bere lekuan adierazita geratu da, A. Roman hil ondoren nola pikete hark berak eraman gintuen, atxilotu gisa, Larrean eta inguruetan geunden bost erlijiosoak: Aita Jose Domingo, Avelino, Bizente, Rafael eta Anaia Eugenio.

Gu Etxanorantz abiatu eta laster, Maria andereñoa, A. Avelinoren arreba, sorora joan zen ganadu-jateko bila eta oraindik bero zegoen gorpua aurkitu zuen han; bera A. Jose Agustine-na zelakoan zegoen hasieran eta etxera itzultzean hala esan zien etxekoei, gorpua bat zetzala, ustez, A. Jose Agustinen, komentuko ortuko hormaren ondoan. Orduan haren ahizpa Leona esandako lekura joan zen eta A. Romanen gorpua ezagutu zuen.

Hilaren 20an, eguerdian, Etxanotik Larreara itzuli ziren libreki ibiltzeko baimenarekin Aita Bizente eta Anaia Eugenio, gorago esan dugunez; Leona andrea bidera irten zitzaien eta esan zien A. Romanen gorpua komentuko hormaren ondoan zetzala.

Biharamunean, A. Bizente ez zen ausartzen gorpuari lur ematen aginte militarari esan gabe eta, Teniente Koronel Lastra jaunaren egoitzarantz abiatu zen; honek, ehorzteko baime-na eman ondoren, esan zion: "Fraide hori geuk hil dugu, gerra

garaian ez baita jokatu behar nahi den moduan”. Bien bitartean Santos jaunak A. Romani lur emateko zuloa egin zuen komentuko ortuan. Itzuli zen A. Bizente Larreara, gorpuari gure ortuan lur emateko asmoz; baina hura iritsi zeneko, soldaduek lurperatua zuten jadanik fusilatua izan zen tokian bertan eta gainean orbel batzuk bota zituzten.

Fusilatzean, dirudienez, belauniko eta hormara begira zegoen A. Roman, gorpua aurkitu zenean zuen jarreratik ateratzen denez: gorputz-enborra zangoen gainean atzerantz erorita eta garondoan hainbat bala-zauri zituela.

Handik bi egunera, Eustakia gure neskameak gorago aipatua dugun Aramaio erreketearen bisita izan zuen; A. Romani buruz galdezka etorri zitzaion, honen ikasle izana eta hau bihotz-bihotzez maite zuena baitzen. Eustakiak “ederra egin duzue A. Roman gaixoarekin: hil besterik gabe!” esan zionean, mutilak, malkoak begietan, kontatu zion nola herriko norbaitek salatu zuen aita karmeldarra abertzale izateaz eta bere politikaz ikastetxeko umeei kalte handia egiteaz. Bera, Aramaio, hura hiltzearen aurka agertu zen Altuna kapitainaren aurrean; haren ikasle izan zela eta ondo ezagutzen zuela esan zion; bere izaeraz bihotz onekoa zela, era bateko nahiz besteko politikatik urrundua, sermoiak egiten aritzen ez zenez gero, ez zuela harremanik kanpoko jendearekin eta haren bizitza umeen hezietan erabat emana zela eta sekula ez ziola entzun hitz bakar bat ere politikaz. Baina kapitainak erantzun zion: “Mutilak, Zornotzatik igaro diren espioi batzuek salatu egin dute eta berehala hiltzen ez baduzue, geuk ordaindu beharko dugu”...

Aramaiok ez zuen adorerik izan ekintza hartan presente egoteko; beraz, erretiratu egin zen eta ez zuen gehiago ezer jakin garai batean bere zuzendari izan zuen Aita karmeldarraren zoriaz eta azkenaz.

“Oriamendi”ko Kapilau jaunak, gure Begoñako komentura egindako bisita batean esan zuen, berarekin konfesatu zela A.

Roman hil aurretik eta sendotasunez eta kementsu hil zela. Bi aldiz esan omen zuen: “baina, zergatik hil behar naute?”

Hura hil zutenetik 15 egunera, gure Probintziala, A. Sergio Santa Teresarena, Durangoko Komandantzian agertu zen, A. Roman fusilatzeke motiboak jakitera. Komandante jaunak, bere adiskide zuenak, erantzun zion ez zekiela kasu horren berri, baina behar ziren urratsak emango zituela jakiteko. Geroago adierazi zion, A. Roman espioi izateagatik fusilatu zutela.

Gasteizko “El Pensamiento Alavés” egunkariak argitaratu zuen egun haietan, A. Roman, Zornotzako ikastetxeko Nagusia, Gorri-Separatistek hil zutela, nazionalen tropak Zornotzan sartu zirenean Bilborantz ez zuelako erretiratu nahi izan.

A. Probintzialak, Burgosera egin behar zuen bidaiaz baliatuz eta Gil Yuste Jeneralari, Entzutegi Nagusiko Buru zenari, egindako bisitan, A. Romanen heriotzagatik protesta egin zuen. Jeneralak, haserre bizitan, ihardetsi zion, A. Roman Zornotzako “Checa”ren burua izan zela zioten testigantzak eta dokumentuen sinadurak ere bazituela. Aita Probintziala sutan jarri zen gezur beltz horren aurrean eta, esan zituen hitzak zein okerrak ziren pentsarazi nahirik, kargu hartu zion gogor; orduan, zakarki aldatu zuen Jeneralak elkarrizketaren haria.

Irene Isusik eta Eustakiak, A. Bizentek, Leona Linazak eta gure Probintzial A. Sergiok emandako lekukotasunen gainean eraikia dago kontaketa hau.

Aipaturiko gertakari honetatik 15 egunera hil zen Lastra jaunna, automobileko istripu batean, Bizkaitik Iruñera zihoala, Altsasutik hurbil. G.B.

Oharra

Hiru urte igaro ondoren A. Amaliok, Probintzial eta A. Romanen ikaskideak, esan zidan: “Kapilau jaunaren arrebak, mojak, esan zidan A. Roman *Viva España* oihukatu nahi ez zue-

A. ROMAN KARMELDARRA



Aita Roman eta bera bil zuten lekua. (Larreako bormak)

lako hil zutela. Ez genuen sinistu hori ez hark eta ez nik. Pixka bat geroago, Jesusen Bihotzaren jaiari Getariako Parrokian hitzaldia egitera dei egin zidaten; Intxaurandiaga jauna zegoen han erretore. Uste nuen aukera ona zela A. Romanen heriotzaz zerbait interesgarria jakiteko.

Ez zekien zergatik kondenatu zuten. Hilko zuen piketearekin joateko agindu zioten.

–Bazekien A. Romanek fusilatzeraz zeramatela hiltzeko lekura eraman zutenean?

Hark erantzun zidan:

–Ez zioten esan leku hartara iritsi arte, baina, beharbada, zerbait susmatuko zuen. Baina behin leku hartan geundela, esan genion guk jaso genuen agindua... eta Karmeldarrak bi aldiz errepikatu zuen esaldi hau: “baina zergatik hilko nauten?”... Hantxe bertan konfesatu zen nirekin.

–*Viva España* oihukatu nahi ez zuelako hil zutela entzundut.

–Ez, ez zen horrela izan. Konfesatu zenean, horma kontra jarri zuten eta tiro egin aurretik esan zioten: oihukatu *Viva España*. Karmeldarrak ez zuen ezer esan. Berritro esan zioten: oihukatu *viva España*, baina hark ez zuen hitzik egin; orduan, piketekoek, *Viva Cristo Rey* oihu eginez, tiro egin zioten.

–Nola zegoen tiro egin ziotenean, belauniko ala zutik?

–Ez dakit hori eta ez dakit begiratu nuen ere, frontean igaro nuen unerik txarrean horixe izan zela uste baitut”.

Azken gogoetatxo

“Fusilen tiro-hotsa entzun zen eta haiek kendu zioten bizia erlijioso eredugarri, hainbat urtez merezimendu handiko zuzendari eta une hartan ikastetxeko bikario zen A. Roman San Joserenari”.

Hona labur bildurik, gerrateko ingurumarian izan zen gertakari tristeetako bat, alde batetik eta bestetik izan zirenen artean, bat gehiago. Gertatzen dena hau da: batzuen izena aipatua eta goretsia izan den bitartean, besteena isildua eta belztua izan dela. Esker ona zor diogu A. Rafaeli, oroipen historikorako, azken gerrateko Larreako komentuaren kronika zehatza, lehen mailako lekuko legez bizi izana, utzi digulako. Guk ere ekarpen xume bat egin dugulakoa dugu haren dokumentua euskarara itzuli eta *Karmelen* irakurleei eskaitzean eta orain Aita Romanen oroipena berriro orrialde hauetara ekartzean.

Luis Baraiazarra Txertudi